

# **Ikasturte hasierako guraso-bilera**

## **LH 2. Maila**

### **2021-2022**

Orereta-Errenteria, 2021eko irailaren 21

## **METODOLOGIA**

Lehenengo mailan hasitako bideari jarraipena emanez, bigarren mailan ere iazko egitura pedagogiko berak mantenduko ditugu, mailari dagozkion eduki eta helburuetara egokituz. Alde batetik, ikasleak era autonomoan aritzeko uneak eta guneak diseinatu ditugu eskuratu beharreko kompetentziak garatu ditzaten. Bestetik, irakasle taldeak proposatutako proiektuak (Txanela), taldeka zein bakarka gauzatu beharko dituzte euren ikasketa prozesua garatzen laguntzeko helburuz.

## **EBALUAZIOA**

Ikaslearen heziketa prozesua kompetentzietan ebaluatuko da. Ikasturtean zehar bi informe jasoko dira ikasleen lorpenak, garapena eta hobetzekoak islatuz. Informe idatzi hauek Alexia bidez komunikatuko dira, bata urtarilaren azkeneko astean eta bestea ekaineko azken eskola egunean.

Ondokoak dira informeetan ebaluatuko diren kompetentziak, definizio xume batez lagunduta:

- **Norbera izaten ikasteko kompetentzia.**

“Beharrezkoa da gizabanakoei baliabideak ematea beren nortasuna eraikitzen laguntzeko eta pertsonak duen potentzialtasuna ahalik eta gehien garatzeko.”

- **Elkarbizitzarako kompetentzia.**

*“Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan parte hartzea da, gainerako pertsoneri aitortuz nor bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak.”*

- **Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.**

*“Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzen.”*

- **Egiten eta ekiten ikasteko kompetentzia.**

*“Ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea da.”*

- **Komunikaziorako kompetentzia.**

*“Komunikazioa (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala) modu osagarrian erabiltzea, komunikazio egokiak eta eraginkorrak egiteko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.”*

- **Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia: euskara**

*“Euskarazko hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.”*

- **Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia: ingelesa.**

*“Ingelesezko hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, ingelesez, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.”*

- **Matematikarako kompetentzia.**

*“Jakintza matematikoa erabiltzea bizitzako beharizanean dagozkien arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta horiei erantzuteko”.*

- **Zientziarako kompetentzia.**

*“Zientziaren jakintza eta metodologia modu koherente, bidezko eta zuzen batez erabiltzea testuinguru esanguratsuetan sistema eta fenomeno naturalak interpretatzeko, errealitatea ebidentzia zientifikoaren argitara ulertzeko eta erabaki arduratsuak hartzeko bizitzaren esparru eta egoera guztietan.”*

- **Kompetentzia sozial eta zibikoa.**

*“Nork bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ezagutu eta ulertzea da, gizarte zientzien jakintzak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz.”*

- **Arterako kompetentzia.**

*“Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta modu kritikoan*

*balioestea. Era berean, arte-hizkuntzak ezagutzea, eta haien kodeak erabiltzea arte-mezuak ekoitzi eta nork bere burua ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazi eta komunikatzeko.”*

- **Konpetentzia motorra.**

*Norberaren eta gainerakoen jardun-eremu motorreko egoerak sormenez eta adierazkortasunez lantzea. Jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarri batean oinarrituta, ongizate osoa lortzen laguntzeko.*

Informeez gain, 2. mailako tutoreak 2 aldiz elkartuko dira ikasleen familiekin euren seme-alabaren ikasketa prozesua gertutik jarraitzeko asmoz:

1. bilera, urria eta azaroa bitarte burutuko da. Bilera honen xedea, ikasturte hasieran egindako aurre-ebaluaziotik jasotako informazioa gurasoekin partekatzea izango da.

2. bilera maiatza eta ekaina artean egingo da, maila bukaeran ikasleak izan dituen gaitasunei buruz arituko dira.

## **ARLOAK**

### **TXOKOAK:**

Astean zehar lau orduz izango dute txokoetaz gozatzeko eta ikasteko aukera:

Idazketa txokoa: laz landutako testu-generoez gain, aurten genero berriak izango dituzte eskura. Txoko honen helburua, duten idazketa maila dutela ere, testu propioen sormena bultzatu eta idazketa prozesuan aurrerapausoak ematea izango da. Gune hauetan oso gustuko duten pertsonai eta materialekin egingo dute topo, euren ikasketa ahalik eta atsegina izateko asmoz.

Arte txokoa: Musika zein plastikako disziplinak uztartuz, ordu honetan sormena garatzen lagunduko dieten proposamenak eskainiko dizkiegu.

Matematika txokoa: Ordu honetan ikasleek matematikako edukiak landuko dituzte, modu manipulatio eta ludikoan.

Txoko anitza: Astean zehar beste txokoetan ikusitako proposamenak izango dituzte gelan eta beraien nahiei eta beharrei erantzunez ordu horretako zereginak aukeratuko dituzte.

## **PROIEKTUAK:**

Nagusiki, euskara eta literatura, zientzia eta balio sozial eta zibikoen konpetentziak garatzen laguntzen digun materiala da Txanela. Ikasleek orohar oso gustuko dituzten gaiak aukeratu ditugu mailari dagozkion edukiak eskuratu eta konpetentziak garatu ditzaten.

Irakasle taldeak gai hauek proposatuko dizkiegu ikasturtean zehar:

- **Greziatik Erromara**

Gabonak bitarte bi zibilizazio hauen ezaugarriak ezagutzen arituko gara. Garai bakoitza aztertzeaz amaitutakoan proiektu bana burutu beharko dute, biek ala biek ohitura osasuntsuez jabetzea izango dutelarik helburu. Greziarren garaian, Olinpiar Jokoak antolatu beharko dituzte eta Erromatarren garaian aldiz, garai hartako elikadura kontuan hartuta, hamaiketakoa prestatu beharko dute.

- **Nolako txabola**

Denboraren makina hartuta, aurrera egin eta Erdi Arora bidaiatuko dugu. Garaiaren ezaugarriak aintzat hartuz, ikasleak, taldeka jarrita, garaiari buruzko maketa bat sortu beharko dute eta gaiaren inguruko antzerki bat asmatu.

- **Hamar, bederatzi, zortzi, zazpi, sei...**

Lehenbizikoz, Lur planetatik alden du eta unibertsoa aterako gara espazioa aztertzerako eta gure planeta nolakoa den ikertzerako. Bidai zirrargarri hori amaitzean, lurreratu eta Eguzki-sistema edo ikasleek sortutako sistema bat sortu beharko dute.

- **Gure basoa**

Ikasturtean zehar baso eskolako saioetan lortutako informazioa biltzen joango gara, ikasturte amaieran jasotako ebidentziekin erakusketa bat antolatzeke helburuz.

## **ARTE HEZKUNTZA**

Arte Hezkuntzako saioetan Arno Sternen eta Karl Orffen teoriak hartu ditugu oinarri gisa. Hauen ideiak aintzat hartuz, ikasleek barruan dutena adierazteko baldintza egokiak eskeintzea da gure egitekoa (espazioa, materiala, giro atsegina) eta ikerketa eta esperimenezko aukerak ematea.

## **PSIKOMOTRIZITATEA**

*Ekintza, jolas eta mugimendutik pentsamenduaren sorrerara doan prozesua da, hots, umea mundu sinbolikora iristeko prozesua. Umeak bere irudikapen mental kontziente eta inkontzienteak garatzen ditu bere ekintza, sentsazio eta emozioen bitartez. Umeak "jolasteko eta mugitzeko plazerretik pentsatzeko plazertera" doan prozesua garatu dezake psikomotrizitate gelan. (Luzaro psikomotrizitate eskola)*

## **BASO ESKOLA**

Añabitarten dugun inguru paregabeari esker baso eskolan aritzeko aukera dugu. 15 egunean behin goiza gure basoan igaroaz. Baso-eskola naturan garatzen den hezkuntza-eredua da. Hurrek basoan edo ingurune natural batean jolastu, ikertu eta ikasten dute eta helduek behatzaile papera jokatzen dute bertan, haurrak lagunduz baina ez gidatuz.

## **INGELESA**

The adventures of Hocus and Lotus materiala erabilita, ikasturtean zehar ikasleak 6 istorioetan murgilduko dira. Helburua, ipuinetan, abestietan eta jolasetan ikasitako esaldi egiturak beraienak egin eta hauek egunerokotasunean txertatzen joatea izango da. Ipuin hauetan eduki desberdinak landuko dituzte: asteko egunak, oihaneko animaliak, errimak, maskotak, gaixotasunak eta oporrak.

## MATEMATIKA

Lehen aldiz Innovamat proiektuari ekingo diogu ikasturte honetan. Manipulazioan oinarritzen diren jarduerak proposatuko dizkiegu ikasleei, ondoren abstrakziorako bidea egiteko gaitasuna gara dezaten. Astean 4 saio izango ditu. 2 saiotan (zenbakien laborategia) zenbakikuntza eta eragiketei landuko ditugu. Beste saio batean (erronka) geometria, logika, estatistika eta neurriak jorratuko dira. Azken saioan App erabiliko dugu beste saioetan ikasitakoa sistematizatzeko helburuarekin.

## TUTORETZA

Tutoretza eta Orientazioa jarduera multzo bat da, bai gela barruan, bai kanpoan landuko dena, eta ikasleei bere garapenean lagunduko diena, hain zuzen ere: bere burua ezagutzen eta onartzen (garapen pertsonala), sozializazio prozesua hobetzen (garapen soziala), ikasketan aurrera eramaten (ikaskuntza prozesuak) eta etorkizunerako erabakiak hartzen (lanbide orientazioa).

### Aniztasunari erantzuna

Ikasleen behar desberdinei erantzun ahal izateko egon daitezkeen neurri eta programa multzoa da, oinarritzko kompetentziak ahalik eta gehien garatzen laguntzeko.



## **KiVa PROGRAMA**

### **Zer da KiVa?**

KiVa Finlandiako Turku Unibertsitateak (Finlandiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren babesaz) garatutako **jazarpenaren kontrako programa** da.

### **KiVa programaren ezaugarriak**

- Ekintza orokorrak, tutoreak ikasleekin tratatzen dituenak, eta berariazkoak, KiVa taldeak aurrera eramaten dituenak.
- Material eta tresna zehatz ugari: erregistroak, txalekoak...
- Ikaskuntza-ingurune birtualak erabiltzen dira (bideo jokoak).
- Talde osoan du eragina, rol guztiak kontuan hartzen ditu.
- Oso sistematikoa da

### **KiVa-ren helburuak**

- Bullying-en prebentzioa.
- Jazarpenaren abordatze eraginkorra egitea.
- Jazarpenaren eragin negatiboak gutxitzea.

### **Gurasoentzako gida**

<http://www.kivaprogram.net/basque/gurasoak/gurasoen-gida>

### **Gehiago jakin nahi dut**

<http://www.kivaprogram.net/basque>

## **ETXETIK LAGUNDUZ**

Familien laguntza ezinbestekoa dugu ikasleen hezkuntzan eta, maila honi dagokionez, jarrera arduratsua eta autonomia garatzen jarraitzea oinarritzkoa da. Horregatik, honako puntu hauetan arreta berezia jartzea eskatzen dizuegu:

- **Asteko antolaketa**

Zein egunetan izango duen baso eskola, psikomotrizitatea... konturatzen laguntzea beharrezkoa dute. Egun horretarako zein arropa beharko duten prestatzen laguntzea beharrezkoa da.



Etxera oharririk eraman duten ikusi eta hurrengo egunerako motxila eta arropak prestatzea beharrezkoa izango dute.

Txoko txurirako liburu eta informazioak aurrez elkarrekin prestatzea beharrezkoa izango dute.

- **Motibazioa:**

- Gelan lantzen diren gaiekiko interesa erakutsi.
- Ikasturtean zehar izandako aurrerapena baloratu eta goraiatu.

- **Euskararen erabilera**

Euskal komunikabideak kontsumitzera eta aisialdian **euskarazko** jarduerak egitera animatu.

- **Autonomia**

Bai ikastolako jardueretan, bai eguneroko bizitzan beraiek ardurak hartzea:

- Sortzen diren arazoei aurre egin.
- Zailtasunen aurrean jarrera baikorra eta aktiboa izan. Beraiek bila ditzatela soluzioak, betiere gure laguntza eskainiz behar dutenean.
- Autonomiarantz eman beharreko prozesua progresiboa eta pertsonala da.

- **Arte hezkuntza**

- “Ongi dago/gaizki dago”, “marrazki ona/txarra”, “polita/itsusia” bezalako komentarioak ekidin, prozesua oztopatu bailezakete. Horrelako komentarioekin, ikasleen lana epaitzen ari gara. “Gustura zaude?”, “ongi pasatzen ari zara?” bezalakoak erabili.
- “Zer da hau?”, “zer ari zara marrazten?” bezalako galderak saihestu, ikasle bakoitzaren faseak errespetatuz (kasu batzutan, sortutako irudiak ez baitu ezer adierazteko helbururik).
- Konparaketa, lehia eta epaietak sahiestuko dituen testuingura sortu. Ikasle bakoitzak bere errtimoa dauka, bere egitekoa, bere interesa... eta beraz, hauek guztiak ezin dira elkarrekin konparatu.
- Bakoitzari nahi duena adierazteko aukerak eskeini, muga eta epaietarik gabe.

"Haur bakoitza artista da, arazoa da artista izaten jarraitzea hazten zoazen heinean".

Pablo Picasso

- **Irakurzaletasuna**

Irakurzaletasuna etxean bultzatzeko gomendioak:

- Gurasoak seme-alabentzako eredu izan.
- Irakurketa afektibitatearekin lotzea.
- Gurasoek istorio asko kontatzea: gurasoen benetako istorioak.
- Eguneroko egoerez baliatu irakurtzeko, dituzten afizioak aprobetxatu.
- Liburutegira noizbehinka joatea. Bazkide egitea.
- Liburu dendetara edota azoketara joan eta liburuak beraiek aukeratzea.
- Etxean liburuak eskura izatea, nahi dutenean hartzeko.
- Kalitate literarioa duten ipuinak eskaintzea: Galtzagorri Elkartearen eskutik liburu gomendioak. <https://www.galtzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura>
- Nahiz eta irakurtzen jakin, beraiekin irakurtzen jarraitzea, irakurketa partekatzea.
- Irakurketa gauzatzeko giro egokia bermatzea.
- Lagunen artean liburuak trukitzea.
- Libururik ez debekatzea.
- Irakurtzen dutenez interesatzea eta guk irakurtzen dugunaren inguruan komentarioak egitea.

## ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

Orientatzaileak:	Itziar Basterrika (HH) Maddalen Iriondo (LH) Goizargi Iglesias (DBH)
HPBko irakasleak:	Itziar Basterrika (HH) Maddalen Iriondo(LH) Maialen Gurrutxaga (LH) Ane Beltran (LH) Susana Marcos (DBH)
Heziketa espezialistak	laguntzako Aitor Franco Maite Intziarte

**Helburuak:**

Orientazioa etengabeko laguntza prozesua da eta helburu du **ikasleei oinarrizko kompetentziak eskuratzen eta bere proiektu pertsonala garatzen laguntzea.**

Hau dela-eta, Orereta Ikastolako Orientazio Departamentuaren eginkizun nagusia Hezkuntza Orientazioa sustatzea da, curriculum osoan eta ikasle guztiekin. Departamentu honen jarduna bi prozesuetan gauzatzen da gehien bat:

Tutoretza eta Orientazioa

Tutoretza eta Orientazioa jarduera multzo bat da, bai gela barruan, bai kanpoan landuko dena, eta ikasleei bere garapenean lagunduko diena, hain zuzen ere: bere burua ezagutzen eta onartzen (garapen pertsonala), sozializazio prozesua hobetzen (garapen soziala), ikasketan aurrera eramaten (ikaskuntza prozesuak) eta etorkizunerako erabakiak hartzen (lanbide orientazioa).

Aniztasunari erantzuna

Ikasleen behar desberdinei erantzun ahal izateko egon daitezkeen neurri eta programa multzoa da, oinarrizko kompetentziak ahalik eta gehien garatzen laguntzeko.

**HIZPRO-EUSKARAZ BIZI PROIEKTUA**

Orereta Ikastolako sorrera-helburua euskara eta euskal kulturaren transmisioa eta sustapena dira. Etengabeko jarduerak eta kanpainak aurrera eraman arren helburua betetzeko zailtasunak agerikoak dira Orereta ikastolan eta euskararen lurralde osoan. Euskal Herriko lehen kale-neurketa egin zenetik, hogeita zazpi urteetan, 1,8 puntu egin du gora euskararen erabilera. Hasiara hartan, 1989an, % 10,8ko erabilera jaso zen. Baina, duela hamar urtetik hona euskararen kale-erabilera apaldu egin da. 2016ko udazkenean burututako kale-neurketan euskararen erabilera % 12,6koa izan da; gaztelaniaren erabilera % 76,4koa, frantsesaren erabilera % 8,3koa eta beste hizkuntzen erabilera % 2,7koa.

Orereta ikastola egoera honetan arnas-gune bat dela jakin arren, asko dugu egiteko. 2019-2020 ikasturtean ikasleak euskararen normalizazioan protagonistak izendatu genituen. Euskaraz Bizi egitasmoa berrikusi eta ikasleen aitzindaritza suspertuz dinamika desberdinak jarri genituen indarrean.

BLAITU euskara taldea antolatu genuen gela bakoitzeko ordezkariekin. Bertan aztertu eta diseinatu ziren etapa osorako indarrean jarritako jarduera eta ekimenak. Beraz, Euskararen erabilera sustatzeko eta kalitatea hobetzeko egitasmoa izan zen BLAITU euskara taldea. Baina tamalez, aurtengo egoerak bultzaturik ezinezkoa izango da proiektu hau garatzea. Ea datorren ikasturtean taldea osatzeko moduan aurkitzen garen hasitako bideari jarraipena emanaz.

Irakasle eta langile guztiok konpromiso argia hartzen dugu euskararen erabileraren alde eragiteko, baita dagozkigun arloetan formazioa hobetzen jarraitzeko ere.

Gurasoen kasuan, ikasleen hizkuntza erabileran familiak duen garrantzia bereziki azpimarratu nahi dugu.

**Guraso euskaldunek** beren artean euskara erabiliz modurik eraginkorrena dute seme-alabengan ahalik eta hizkuntza erabilera eta gaitasun onena ziurtatzeko. Zaindu hizkuntza bizitzaren esparru guztietan.

**Guraso erdaldunek ere**, euskararekiko interesa erakutsiz eta seme-alaben arteko euskarazko erabilerak oro har sustatuz (euskarazko komunikabideak adibidez), seme-alaben euskararen erabileran modu positibo batean eragin dezakete. Zer esanik ez euskara ikastera animatzen badira.

## **ZUBIAK ERAIKIZ**

2016ean sinatu genuen hitzarmena Ipar Euskal Herriko Ikastola ezberdinekin. Hasiera batean lau Ikastolak sinatu genuen eta ondoren Urruñakoak gehitu ziren. Hiru urte hauetan harremanak handitzen joan dira eta aurtengoan beste bi Ikastola gehituko zaizkigu hitzarmenera: Berako Labiaga Ikastola eta Lesakako Tantirumairu Ikastola. Horrela, gure Ikastolako gela guztiek harremanetan egoteko aukera edukiko dute.



## **HITZARMENAREN HELBURUA**

Lurralde administratibo ezberdinetan kokatuta egonik, zubi bat eraikitzea elkarrengana hurbiltzeko. Horregatik, gure Ikastoletako ikasleak, irakasleak, langileak eta gurasoak harremanetan jarri nahi ditugu, euskara ardatz hartuta; Lapurdiko, Nafarroko eta Oarsoaldeko eremu euskalduna osatzen dugun pertsonen arteko loturak indartzeko eta elkarrekin hainbat arlotako ekintzak aurrera eramateko.

Aparteko egoera honen ondorioz, hasiera batean aurreko urteetan martxan jarritako dinamika ezberdinak ezin izango ditugu burutu.

## **BARNE ARAUDIA: ZENBAIT OHAR**

Ondoren aipatuko ditugun arauak ikastolaren eguneroko funtzionamendurako ipinitakoak dira. Arau horiek elkarbizitza eta ikastolako helburuen lorpenera bideratuta daude. Ondorioz, guztiok errespetatu eta errespetarazi behar ditugu.

## **EUSKARA**

Ikastolan eta ikastolako jarduera guztietan euskaraz hitz egingo dugu, eta gure ingurukoek ere euskaraz hitz egin dezaten eskatuko dugu.

## **ASISTENTZIA**

### **ASISTENTZIA FALTAK JUSTIFIKATZEKO BALDINTZAK**

- Ikasleen eskubide eta betebeharrak dokumentuko 23. artikuluan oinarritua.

Hona hemen Ikuskaritzatik eman dizkiguten jarraibideak jarraituz, faltak

justifikatzeko erabiliko dugun era:

- Klaseetara joatea derrigorrezkoa da. Klaseetara huts egitea kasu guztietan komunikatu beharko da. Jarduera osagarriek eta eskolaz kanpoko ekintzek hezkuntza jarduera arrunten kontsiderazio berdina dute, asistentzia faltak komunikatzeko prozedurari dagokionez.
- Gurasoei dagokie seme-alaben huts egitearen komunikazioa. Tutoreari, berriz, ontzat jotzea; zalantza izanez gero, etapako zuzendaritza taldeak erabakiko du onargarria den ala ez.
- Huts egitea onartezina denean, familiari jakinaraziko zaio. Huts egiteen berri ematera behartuta gaude, bai udaleko zerbitzu sozialei, bai Ikuskaritzari.
- Ikasleren bat klasera etortzen ez denean, irakasleek erregistro orrian jasoko dute.
- Irakasleek etortzerik ez dutenean, ahal den guztietan, gurasoek edo legezko arduradunek tutoreari idatziz jakinaraziko diote, aldez aurretik. Ezinezkoa denean, egun berean, telefonoz pasatuko diote abisua tutoreari eta irakasleak klasera datorren lehenengo egunean ekarriko du komunikazioa idatziz, banatuko den “txekera” erabiliz.

## **OSASUN ARRETA**

Ikastolan ez diegu ikasleei botikarik emango, mediku baten agiririk gabe.

Ikasleren bat gaixotuko balitz, gurasoei deituko zaie, eta hauek etorri beharko dute ikaslearen bila.

Larrialdi egoera bat suertatuko balitz, larrialdi zerbitzuei hots egingo zaie Ikastolatik, baita gurasoei ere.

Gaixotasun kronikodun ikasleentzako protokolo bat martxan jarri dugu. Ikasleren batek horrelako arazorik izango balu (asma, medikazioa hartu beharra, krisialdiak...), tutoreari jakinarazi beharko zaio, berak protokoloa martxan jar dezan.

## **EGUERDIAK ETA ARRATSALDEAK**

- Jolaslekuan eta ikastolako barne eremuetan errespetuzko jolasak eta jarrerak gordeko dira, ikastola komunitateko beste partaideak molestatzeko saihestuz eta ondasunak zuzen erabiliz.
- Eskola ordutegia hasi aurretik (9:00ak baino lehen) eta amaitzean (16:30) ikasleak ikastolako eremuan gelditzen badira, gurasoen ardurapean izango da. Eskolaz kanpoko jardueretan bertako monitoreek izango dute zaintzaren ardura.
- Gurasoek, eskola ordutegia amaitu aurretik seme-alaben bila etorri behar badute, gelaraino joan beharko dute.

## **JANGELA ZERBITZUA ERABILTZEN DUTEN IKASLEEK BETE BEHARREKO ARAUAK**

- Ikasleek jangelan bazkaldu behar ez duten egunetan, gurasoek aurrez adierazi beharko dute.
- Ikasleren batek alergiarik edo janari batekiko arazoren bat baldin badu, sendagilearen ziurtagiria ekarri beharko du.
- Jangelako erabiltzaileek ikastolako araudia errespetatu beharko dute.

## **GURASOekin HARREMANA**

Tutoreekin harremanetan jartzeko telefonoz dei dezakezue edota emaila erabil.

- Maitane Sanchez: [masanchez@oreretaikastola.eus](mailto:masanchez@oreretaikastola.eus)
- Jon Alustiza: [jalustiza@oreretaikastola.eus](mailto:jalustiza@oreretaikastola.eus)
- Naroa Otamendi: [notamendi@oreretaikastola.eus](mailto:notamendi@oreretaikastola.eus)
- Eli Olasagasti: [eolasagasti@oreretaikastola.eus](mailto:eolasagasti@oreretaikastola.eus)

Telefonoz zuzenean hitz egiteko, 943520397 telefonora deitu.

Bestalde, LHko orientatzailearekin, LHko zuzendariarekin edo zuzendari pedagogikoarekin harremanetan jar zaitezke bestelako kasuetarako. Halakorik nahi izanez gero, hitzordua tutorearen bidez eskatu dezakezue.

